



PARTE HARTZEKO ESKULIBURUA HAUTESKUNDE MAHAI BATEAN



2024

hauteskundeak elecciones



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Baliozkotasun lan taldea

- Álvaro Fernández San Nicolás.
- Dayana Álvarez Guerra.
- Erik Martínez Briones.
- Iker Pascual Larrinaga.
- Imanol Yébenes Pozo.
- Maialen Uriarte Oñaederra.
- Maren Iturbe Marín.
- Julen Mesa Sanz.

Gida honen egileak

ErrazTEA, irisgarritasun kognitiboa bermatzeko lan egiten duen zerbitzua da.
Apnabi Autismo Bizkaiaren parte da.

Data: 2024ko urtarrila.

Erabilitako prozedura

Irakurketa erreza bertsioan aurkeztutako dokumentua hurrengo arauaren arabera egokitu eta baliozkotu dira:

- UNE 153101:2018 EX.
- UNE 153102:2018 EX.

Aurkibidea

1	Sarrera.	Orria 5
2	Hitz zailen zerrenda.	Orria 8
3	Zer da hauteskunde mahaia?	Orria 14
4	Hauteskunde mahaia osatzen duten pertsonak. Ordezkoak. Hauteskunde mahaia osatzen duten beste pertsona batzuk.	Orria 16
5	Hauteskunde mahaian behar den materiala.	Orria 20
6	Hauteskunde mahaian dauden pertsonen eginkizunak. Mahaiko pertsonen eginkizunak bozketa aurretik. Mahaiko pertsonen eginkizunak bozketa bitartean. Mahaiko pertsonen eginkizunak bozketaren ondoren.	Orria 23
7	Hauteskunde mahaiko pertsonak agintariei eman beharreko dokumentazioa.	Orria 32
8	Irisgarritasuna hauteskunde prozesuetan eta desgaitasuna duten pertsonen botoa. Desgaitasuna duen pertsona bati zuzentzeko aholkuak.	Orria 33

-
- 9 Hautesleku barruan bete beharreko arauak.** Orria 38
Hauteslekuetan sar daitezkeen pertsonak.
-
- 10 Hauteskunde mahaian egon daitezkeen arazoak.** Orria 42
Bozketa hasi aurretik egon daitezkeen arazoak.
Bozketa bitartean egon daitezkeen arazoak.
Bozketaren ondoren egon daitezkeen arazoak.
-

1. Sarrera.

Dokumentu hau, 2024ko hauteskunde autonomikoetan **hauteskunde mahaian** parte hartzen duten pertsoneri zuzenduta dago.

Huteskunde mahaia, gu ordezkaturko gaituzten politikariei botoa emateko lekua da.

Huteskunde autonomikoetan, Euskadiko Legebiltzarrean gu ordezkaturko gaituzten pertsonak aukeratu ditugu. Pertsona hauek parlamentariak dira.

Eusko Legebiltzarra 75 kidek osatu dute. 25 lurralde historiko bakoitzeko:

- Araba
- Gipuzkoa
- Bizkaia

Eusko Legebiltzarreko parlamentariak
Euskadiko Lehendakaria aukeratzen dute.
Lehendakaria Euskadiko presidentea da.

Legebiltzarraren **eginkizunak** hauek dira:

- Legeak egin.
- **Aurrekontuak** onartu.
- Eusko Jaurlaritza egiten duena kontrolatu.

Legebiltzarreko parlamentariak botoa emateko
governatuko duen talde politikariaren
boto-paper zuria aukeratuko dugu.

Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak aurkezten
dituen alderdi politiko bakoitzeko
boto-paper zuri bat dago.

Aukeratu dugun alderdi politikoaren boto papera
Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak jartzen duen
gutun-azal zurian sartuko dugu.
Ondoren, gutun-azala **hautestontzian** sartuko dugu.

Eginkizuna:

Bete behar diren
zereginak.

Aurrekontu:

Dokumentu bat da.
Dokumentu horretan
Euskadi daukan eta
erabili ahal duen
dirua azaltzen da.



Boto-paper zuria
gutun azal zurian
sartu.

Dokumentu honetan ulertzeko zailak diren hitzak aurkituko dituzu.

Hitz hauek letra **lodia** idatzita daude.

Hitz hauek zerrenda batean A-tik Z-ra ordenatuta daude.

Jarraian hitz zailen zerrenda eta horien esanahia dituzu.

Dokumentu honetan hauteskundeetako azalpenak ematen dira:

- Zer den hauteskunde-mahaia.
- Hauteskunde-mahaia osatzen duten pertsonak.
- Hauteskunde-mahaietan beharrezko materiala.
- Hauteskunde-mahaietan dauden pertsonen eginbeharrak.
- Hauteskunde-mahaiko pertsonak epaileei eman beharreko dokumentazioa.
- Irisgarritasuna, hauteskunde prozesuetan eta desgaitasuna duten pertsonen botoa.
- Hauteslekuetan bete beharreko arauak.
- Hauteskunde-mahaietan egon daitezkeen arazoak.

2. Hitz zailen zerrenda.

Ahaldunak:

Alderdi politiko bateko pertsonak dira.
Hauteskunde-mahai ezberdinetan
eta hainbat hauteslekuetan egon daitezke.

Ahaldunen eginbeharrak hauek dira:

- Bozketak eta zenbaketak ondo daudela egiaztatzea.
- Protesta egin, dokumentuak erreklamatzeko eta eskatzea egin ahal dute.
Adibidez, hauteskunde-mahaia eratze-akta eskatzea.
- Hauteskunde-mahaian artekaria izatea,
beste bat ez dagoenean.

Akreditazioa:

Akreditazio-txartelan pertsonaren izena
eta bere lanpostua bozketa-egunean agertzen da.
Baita ere, zein alderdi politikotakoa den.

Artekariak:

Hauteskunde-mahaia osatzen duten pertsonak dira.

Hauteskundeetarako aurkezten diren alderdi politikoetako pertsonak dira.

Hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoak mahaietako artekariak aukeratzen dituzte.

Artekariak akreditazio bat dute artekariak direla egiaztatzeko.

Artekarien eginbeharrak:

- Bere iritzia eman ahal dute.
 - Ez dute erabakirik hartzen.
 - Protestak eta erreklamazioak egin ahal dituzte eta baita dokumentazioa eskatu ere.
- Adibidez, hauteskunde-mahaiaren eratze-akta eskatzea.

Artekarien izendapenaren kopiak:

Artekariei hauteskunde-mahai batean egoteko aukera ematen dieten dokumentuak dira.

Behin-behineko boto-zenbaketaren jakinaraztea:

Hauteskunde-mahaiko dokumentua da.

Dokumentu honetan, hauteskunde-mahaiko pertsonak hauteskundeetan mahai horretako boto kopurua idazten dute.

Bilkura-akta:

Hauteskunde-mahaiko dokumentua da.

Hauteskunde-mahaiko pertsonak idazten dute dokumentu hau.

Bertan agertzen dira alderdi politiko bakoitzak

lortu dituen botoak eta egunean zehar egon diren arazoak.

Bozketa-ziurtagiria:

Eskatzen duten pertsonak ematen zaien dokumentua da.

Bozketa-ziurtagiriak botoa ematera joan zarela egiaztatzen du.

Bozketa-kabina:

Hauteslekuaren barruan dagoen leku bat da.

Bozketa-kabina hauteskunde-mahaitik hurbil dago.

Bozketa-kabinan zure botoa modu pribatuan ematen duzu.

Bozketa-kabina barruan alderdi politiko guztien

gutun-azalak eta boto-paperak daude.

Epai judiziala:

Dokumentu bat da epaile batek idazten duena. Epaileak dokumentu honetan idazten du arazo bati buruz hartutako erabakia.

Errolda-ziurtagiria:

Errolda-ziurtagirian zure datuak agertzen dira. Adibidez, erroldatuta zauden lekua agertzen da.

Eskualdeko hauteskunde-batzordea:

Erakunde bat da, hauteskundeek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzeko hautesleku guztietan.

Hauteskunde-mahaia:

Hautestontzia jartzen dugun lekua da. Hautestontzian jartzen dugu botoa gu ordezkatzeari nahi ditugun politikariak hautatzeko.

Hauteskunde-mahaiko bokalak:

Hauteskunde-mahaietan dauden pertsonak dira. Egiaztatzen dute botoa ematen duten pertsonak errolda-zerrendan dauden ala ez.

Hauteskunde-mahaiko boto-emaielen zerrenda:

Hauteskunde-mahai horretan
bozkatu duten pertsonen zerrenda da.

Hauteskunde-mahaiko presidentea:

Arazo bat dagoenean zer egin behar den
erabakitzen duen pertsona da.

Hauteslekua:

Botoa ematen dugun lekua da.

Hautestontzia:

Botoa emateko kutxa gardenak dira.
Kutxa hauek itxita daude.
Bozkatzeko hauteskunde-mahaietan dauden pertsonen
NAN edo pasaporteak erakutsi behar zaie.
Bozkatzeko, gure izena errolda-zerrendan ageri behar da.



Mahaiko errolda-zerrenda:

Hauteskunde-mahaian botoa eman
dezaketen pertsonen zerrenda da.

Ordena publikoa:

Hauteslekuan bete beharreko arauak dira.

Ordezkoa:

Zozketa bidez aukeratzen den pertsona da eta titularra ordezkatzen du, titularrak ezin dituenean bete bere eginkizunak.

Eratze-akta:

Hauteskunde-mahaiko dokumentua da. Hauteskunde-mahaian dauden pertsonak, haien funtzioak betetzen hasteko, goizean sinatzen duten dokumentua da. Mahaia eratzeko joan diren titularrek eta ordezkoek sinatu behar dute eratze-aktaren eranskinean. Zerrenda honek “mahaiko kideen zerrenda” izena du.

3. Zer da hauteskunde mahaia?

Hauteskundeak daudenean ordezkatzen gaituzten politikariak bozkatzen dira.

Hauteslekuan botoa ematen da.

Hauteslekuan **hauteskunde-mahaiak** daude eta bertan **hautestontziak** daude. Hautestontzietan botoa sartzen da.

Hauteskunde mahaietan dauden pertsonak botoak zenbatzen dituzte hauteskundeak nork irabazi dituen jakiteko.

Hauteskunde mahaietan dauden pertsonak udalek aukeratzen dituzte zozketa baten bidez.

Hauteskunde mahaietan egoteko beharrezkoa da:

- Irakurtzen jakitea.
- Idazten jakitea.
- 18 eta 70 urte bitartean izatea.

Zozketan hautatutako pertsonak
hauteskunde mahaian parte hartzera behartuta daude.

Hauteskunde mahaiara joaten ez
bazara isuna jarriko dizute.

Hauteskunde mahaiara ezin bazara joan
justifikatu egin behar duzu.

Adibidez:

- Gaixorik egoteagatik.
- 6 hilabetetik gora haurdun egoteagatik.
- 65 urte baino gehiago izateagatik.
- Adimen desgaitasuna izateagatik.

Justifikazioa, **eskualdeko hauteskunde batzordeari**
eman behar zaio.

Hauteskunde batzordea, hauteskundeak
ondo dabilzala arduratzen da.

Hauteskunde mahaiko pertsona hautatua zarela
esaten dizuten egunetik, 7 egun dituzu egiaztatzea emateko.

Adibidez, uztailaren 3an

hauteskunde mahaiko pertsona bat zarela esaten dizute.

Uztailaren 10era arte duzu

hauteskunde mahaian egongo ez zarela justifikatzeko.

4. Hauteskunde mahaia osatzen duten pertsonak.

Hauteskunde mahaia pertsona hauek osatzen dituzte:

- **Hauteskunde mahaiko presidente** bat.
Presidenteak zer egin behar den erabakitzen du arazo bat dagoenean edo erabaki bat hartu behar denean.
- Hauteskunde mahaiko 2 **bokal**.
Bokalek botoa ematen duten pertsonak **boto emaileen errolda-zerrendetan** daudela egiaztatzen dutenak dira.

Presidenteentz eta bokalengatik eginbeharrak hauek dira:

- Hauteslekuan goizeko 8etan egotea.
- Tokatu zaizun hauteskunde-mahaira joatea.
- Botoa emateko material guztia dagoela ziurtatzea.
- Botoa eman duten pertsonen botoak biltzea.
- Hauteskunde-mahaian arazorik egotea saihestea.
Arazorik egonez gero, eskualdeko hauteskunde-batzordeari edo poliziariei deitu behar zaio
- Botoak zenbatzea eta dokumentazioa betetzea.
Dokumentazioa epaileari eman behar diote.

Ordezkoak.

Hauteskunde mahaietan **ordezkoak** daude.

Goizeko 8etan egon behar dira hauteslekuan,
hauteskunde mahaiko norbait falta bada,
bere ordez aritzeko.

Ordezkoak ere zozketa baten bidez aukeratzen dira.

Ordezkoak joan daitezke,
hauteskunde mahaia osatzen duten pertsona guztiak
agertzen badira.

Mahaia eratzeko beharrezkoak izan ez diren ordezkoak
hauteslektik joan daitezke, mahaiko kideen zerrenda sinatu eta gero.

Gerta daiteke ez joatea
hauteskunde mahaia osatzen duten pertsonak
eta ordezkoak ere.

Orduan eskualdeko hauteskunde batzordeak
erabakitzen du nortzuk osatuko duten mahaia.
Hauteskunde batzordeak erabaki dezake hauteslekuen
dauden pertsona batzuk osatzea mahaia.

Hauteskunde mahaia osatzen duten beste pertsona batzuk.

Hauteskunde mahaia beste pertsona batzuk osatzen dute.

Hauek dira **artekariak** eta **ahaldunak**.

Hauek alderdi politikoek aukeratzen dituzte.

Artekariak:

Artekariak goizeko 8 eta erdietan baino lehenago hauteslekuan egon behar dira.

Hauteskunde mahaiak, artekariak alderdi politikoek aukeratu dituztela egiaztatzen du.

Honako betebeharrak hauek dituzte:

- Bozketak eta zenbaketak ondo daudela egiaztatzea.
- Iritziak eman ditzakete, baina ez erabakiak hartu.
- Protestak eta erreklamazioak egitea eta dokumentuak eskatzea. Adibidez, hauteskunde mahaiaren **eratzeko-akta** eskatzea.

Ahaldunak:

Ahaldunak ere alderdi politiko batekoak dira.

Hautesleku ezberdinetan

eta hainbat hauteskunde mahaietan egon daitezke.

Ahaldunen eginbeharrak hauek dira:

- Bozketak eta zenbaketak ondo daudela egiaztatzea.
- Protestak eta erreklamazioak egitea eta dokumentuak eskatzea.
Adibidez, hauteskunde mahaiaren eratzeko-akta eskatzea.
- Hauteskunde mahaiaren artekaria izatea, beste bat ez dagoenean.

5. Hauteskunde mahaian behar den materiala.

Hauteslekuetan egon behar dira:

- Hautestontzi bat,
pertsonek botoa eman dezaten.
- **Bozketa kabina** bat hauteskunde-mahaitik hurbil.
Edozein pertsona bozketa kabinan sar daiteke eta botoa modu pribatuan prestatu.
- Gutun azal eta boto paper zuriak.

Hauteskunde mahaiek hurrengo materiala ere izan behar dute:

- Hauteskunde mahaiko errolda zerrenda.
Hauteskunde mahaiko errolda zerrendetan,
botoa eman dezaketen pertsonak agertzen dira.
Posta bidezko botoa eskatzen duten pertsonen datuak
ere hauteskunde mahaiko errolda-zerrendetan agertzen dira.

Hauteskunde mahaiko errolda zerrendetan postaz botoa ematea eskatu duten pertsonak,
izen-abizenaren aurrean
C letra izango dute.

- **Hauteskunde mahaiaren eratze-akta.**
Hauteskunde mahaiko kide guztiak, egunaren hasieran, hauteskunde-mahaia nork osatzen duen jakiteko sinatzen duten dokumentua da.
Eratze-aktak eranskin bat du “mahaiko kideen zerrenda izena duena”. Mahaia osatzera joan diren guztiek, titularrak zein ordezkioak sinatu behar dute zerrenda hau.
- **Bilkura akta.**
Bilkura akta hauteskunde-mahaiko dokumentua da.
Bertan hauteskunde mahaiko pertsonak idazten dute:
 - Alderdi politiko bakoitzak lortutako botoak.
 - Hauteskunde mahai horretan botoa eman duten pertsonak.
 - Egunean zehar gertatutako arazoak
- **Behin behineko boto zenbaketaren jakinaraztea.**
Alderdi politiko bakoitzak lortutako boto kopurua jasotzen duen dokumentua da.
- **Boto-emaileen zerrenda.**
Hauteskunde-mahaietan botoa eman dezaketen pertsonak biltzen ditu.
Hauteskunde mahaiko pertsonak, boto emaileen zerrendan, botoa eman duten pertsonen izen-abizenak idazten dituzte.

- **Bozketa egiaztagiria.**

Botoa ematera joan zarela egiaztatzen duen dokumentua da.

Adibidez, pertsona batek bere lan-ordutegian zehar botoa ematera joan behar badu, bozketa-ziurtagiria eskatu beharko luke, haren lanpostuan entregatzeko.

- **Artekarien izendapenen kopiak.**

Artekarietako hauteskunde mahaiaren egoteko baimena ematen dien dokumentua da.

- Egunaren amaieran ematen den dokumentazioa: gutun azalak eta entrega agiriak.

6. Hauteskunde mahaian dauden pertsonen eginkizunak.

Orain, hauteskunde-mahaian parte hartzen duten pertsonen zereginak azalduko dizkizugu.

Mahaiko pertsonen eginkizunak bozketa aurretik.

Goizeko 8etan,
hauteskunde mahaia osatzen da.

Deitutako pertsonak hauteslekuan biltzen dira.
Ordezkoak behar ez direnean, hauteslekitik joan daitezke,
mahaiko kideen zerrenda sinatu eta gero.

Ondoren, hauteslekuan egon behar den materiala egiaztatzen da.
Zerbait falta bada,
eskualdeko hauteskunde-batzordeari esango zaio.

Goizeko 8 eta 8:30 bitartean, artekariak,
hauteskunde mahaira joan behar dira
eta presidenteari **akreditazioa** erakutsi behar diote.

Artekarien akreditazioa,
pertonaren izena,
bere lanpostua egun horretan
eta zein alderdi politikotakoa den adierazten duen dokumentua da.

Presidenteak guztia ondo dagoela egiaztatzen duenean
hauteskunde mahaia osatzen da .

Presidenteak,
hauteskunde mahaiko eratze-akta idazten du.
Hauteskunde mahaia osatzen duten pertsona guztiek sinatzen dute.

Mahaiko pertsonen eginkizunak bozketa bitartean.

Goizeko 9etan, presidenteak,
hurrengo esaldia esaten du:
Bozketa hasi da.

Pertsonak hauteskunde mahaira hurbil daitezke
eta botoa eman.

Botoa emateko, pertsonak hurrengo pausuak jarraitu behar dira:

- 1. urratsa:

Pertsonak gutun azaletan botoa eramaten dute hauteskunde-mahaira.

Presidenteari, bere izen abizenak esango dizkio.

Baita ere, erakutsiko dio:

- NANA.
- Pasaporte.
- Gidatzeko baimena.

- 2. urratsa:

Bokalek eta artekariak botoa ematen duen pertsona boto emaileen zerrendan dagoela egiaztatzen dute.

- 3. urratsa:

Hauteskunde mahaiko presidentek botoa emango duen pertsonaren izen-abizenak eta “botoa eman” hitza esango du.

- 4. urratsa:

Pertsonak, gutun azala hautestontzietan sartzen du.

- 5. urratsa:

Hauteskunde mahaiko bokalek
pertsona horren izen-abizenak boto emaileen
zerrendan aputatzen dute.

Pertsona horren izen-abizen alboan mahaiko errola-zerrendan
agertzen den zenbakia apuntatu behar dute.

Boto emaileen zerrendan ez dauden pertsonak,
agiri hauek aurkezten badituzte
soilik botoa eman dezakete:

- Botoa emateko eskubidea aitortzen duen **epai judizial** bat.
Epai judiziala, epaile batek arazo bati buruz
hartutako erabakiaren inguruko azalpen dokumentua da.
- **Errolda ziurtagiria.**
Errolda ziurtagiria
zure datuen berri ematen duten dokumentua da.
Adibidez, zure bizilekua.

Boto paperak falta direnean, presidenteak, eskualdeko hauteskunde batzordeari boto-paper berriak ahalik eta azkarren ekartzeko eskatuko dio.

Bozketa gelditu egin behar da, hauteskunde mahaian, alderdi politikoren baten boto-paperak falta direnean.

Hauteskunde mahaia ordubete baino gehiago geldirik dagoenean presidenteak hauteskunde mahaiko pertsonekin kontsulta dezake hauteskundeak luzatzeko.

Bozketa amaitzen bada eskualdeko hauteskunde batzordeak bozketa egiteko beste egun bat erabakitzen du. Bozketa hurrengo bi egunetan egin behar da.

Adibidez, igande batean bozkatzen dugunean eta hauteskunde mahaiko pertsonak hauteskundeak gelditzen badituzte, hurrengo bozketa, hurrengo astelehenean edo asteartean izan beharko litzateke.

Hauteskunde mahaian parte hartzen duten pertsonen ustetan, norbaitek ez badu libreki eta borondatez bozkatu, bilkura aktan azaldu dezakete, baina botoa ematen utzi behar diote.

Mahaiko pertsonen eginkizunak bozketaren ondoren.

Arratsaldeko 8etan bozketa amaitzen da.
Hauteskunde mahaiko presidentek
botoa emateko denbora amaitu dela esaten du.

Ondoren,
postaz iritsi diren botoen gutun azalak
hautestontzietan sartzen ditu.

Bokalek,
botoa postaz eman duten pertsonak hautesle erroldan
agertzen direla egiaztatzen dute
eta boto emaileen zerrendan apuntatzen dituzte.

Botoa ematen duten azken pertsonak hauteskunde mahaian
daudenak dira:

- Presidenteak.
- Artekariak.
- Bokalak.

Pertsona hauek guztiak,
boto emaileen zerrendetan sinatu behar dute.

Bozketa amaitzean, botoak zenbatzen hasiko dira.

Botoak zenbatzeko,
presidenteak gutun azalak ireki eta boto-paperak
ozenki irakurriko ditu.

Hauteskunde mahaiko pertsonak gutun azalen kopurua
eta botoa eman duten pertsonen kopurua berdina dela
egiaztatuko dute.

Presidenteak protesta edo erreklamazioaren bat dagoen
galdetzen du.

Baldin badago, hauteskunde mahaiko pertsonak
erreklamazioaren inguruan
bozkatuko dute eta gehiengoak erabakitzen duena egiten da.

Botoak hauek izan daitezke:

- Boto zuriak.
- Alderdi politiko baterako botoak.
- Boto baliogabeak.

Orain, boto mota ezberdinak azalduko dizkizugu:

Boto zuriak

- Barruan boto papera ez duten gutun azalak.
- Aurkezten ez diren alderdi politikoentzako botoak.

Alderdi politiko baterako botoak

- Hautoeskundeetara aurkezten diren alderdi politiko bati, botoa ematea.

Boto baliogabeak

- Gutun azalik gabeko boto paperak edo eredu ofizialekoak ez diren gutun-azalak.
- Boto paper bat baino gehiago dituzten gutun-azalak.
- Idatzitazko gauzak dituzten boto paperak.

Botoak zenbatzen amaitzeko, boto baliogabeak izan ezik gainontzekoak suntsitu egingo dira.

Presidenteak esaten du:

- Alderdi politiko bakoitzak dituen botoak.
- Hauteskunde mahai bakoitzeko boto-emaile kopurua.
- Boto baliogabeen kopurua.
- Boto zurien kopurua.

Ondoren, boto zenbaketaren behin behineko jakinaraztea eta bilkura akta idazten dira.

Behin-betiko boto zenbaketaren jakinaraztea, hauteskundeko boto guztiak jasotzen dituen dokumentua da.

Bilkura akta, alderdi politiko bakoitzak lortutako botoak eta bozketan izandako arazoak jasotzen dituen dokumentua da.

Hauteskunde mahaiko kide guztiek 2 dokumentu hauek sinatzen dituzte.

7. Hauteskunde mahaiko pertsonak agintariei eman beharreko dokumentazioa.

Emaitzen dokumentazioa

4 gutun-azaletan banatuta daude.

Gutun-azal bakoitza 1etik 4ra izendatuta dago.

1. gutun azalean,
jatorrizko osatze aktan eta bilkura aktan jasotzen diren dokumentuak daude.

2., 3., eta 4. gutun azalean,
eratzeko aktaren eta bilkura-aktaren kopiak daude.

Presidenteak, gutun azal guztiak epaitegian entregatzen ditu.

Horrela amaitzen da, hauteskundeetan hauteskunde-mahaiko pertsona guztien parte hartzea.

8. Irisgarritsuna hauteskunde prozesuetan eta desgaitasuna duten pertsonen botoa.

Desgaitasuna duten pertsonak pertsona autonomoak eta independenteak dira.

Desgaitasuna duten pertsonak ez dute beti laguntza behar. Laguntza behar dutenean eskatuko dizute.

Desgaitasuna duten pertsonak, agintarien laguntza eska dezakete hautesleak gidatzeko.

Desgaitasuna duen pertsona bati zuzentzeko aholkuak.

Ikusmen urritasuna duen pertsona:

Hauteskunde orokorretan, ikusmen urritasuna duten pertsonak botoa **braille sisteman** emateko eskubidea dute. Sistema hau boto irisgarria deitzen da.

Dokumentuak braillez eskuratzeko, hauteskunde aurretik Eusko Jaurlaritzari eskatu behar zaizkio.

braille sistema:

Ikusmen desgaitasuna duten pertsonak komunikatzeko forma da.

Eusko Jaurlaritzak,
pertsona horrek botoa emango duen hauteskunde-mahaira
braillez idatzitako dokumentuak bidaliko ditu.

Hauteskunde mahaiak,
ikusmen-urritasuna duten pertsoneri,
botoa emateko braillez idatzitako dokumentuak
eman behar dizkie.

Braillez idatzitako dokumentuak
pertsonaren etxera ere bidal daitezke.
Eusko Jaurlaritzari eskatu behar diote.

Hauteskunde mahaiak izan behar ditu:

- Braillez botoa emateko eskatu duten pertsonen izen zerrenda eta NANA.

Pertsona hauek hautesle erroldan ere agertzen dira.

- Braillez informazioa duen kutxa bat eta botoa emateko behar duten materiala.

Hauteskunde mahaiko pertsonak,
ikusmen-urritasuna duten pertsonak botoa aukeratzeko
hauteslekuan erreserbatutako lekura bideratu behar dituzte.

Ikusmen urritasuna duten pertsonak botoa aukeratzen dutenean,
hauteskunde mahaira joan daitezke boto paperak bertan sartzeko.

Jakin behar duzu
ikusmen urritasuna duten pertsonak
hauteskunde mahaira txakur gidaria eramateko eskubidea dutela.

Entzumen urritasuna duten pertsonak:

Entzumen urritasuna duten pertsona guztiak
ez dira modu berdinean komunikatzen.

Pertsona batzuk zeinu hizkuntza erabiltzen dute
eta beste batzuk ahozko hizkuntzan komunikatzen dira,
hau da, hitzak erabiltzen dituzte.
Beste batzuk, audifonoak edo inplanteak erabiltzen dituzte.

Haiekin komunikatzeko, begietara begiratu behar diezu.
Motel hitz egin behar da,
azaltzen duzuna ulertzen dutela egiaztatzeko.
Baita ere, komunikatzeko, aplikazioak erabil ditzakezu.

Begietara begiratuz eta astiro hitz egin behar zaie edo ikusizko laguntzak erabil ditzakezu azaltzen duzuna uler dezaten.

Entzumen urritasuna duten pertsonak zeinu hizkuntzako interpretearen laguntzaz joaten badira, entzumen-urritasuna duen pertsonarengana zuzendu behar duzu eta ez, bere zeinu hizkuntzako interpretearengana.

Pertsona goritsuak:

Pertsona goritsua, entzumen urritasuna eta ikusmen-urritasuna duen pertsona da.

Pertsona goritsuak, hitz egiteko zailtasunak izan ditzakete eta pertsona laguntzaile bat behar izan dezakete.

Ikusmen urritasuna duen pertsonak ibiltzeko laguntza behar badu, gure besoa eskain diezaiokegu.

Baita, txakur gidariarekin hauteslekura sartu daiteke ere.

Adimen urritasuna duten pertsonak:

Adimen urritasuna duten pertsoneri argi eta erraz hitz egin behar zaie botoa emateko informazioa ondo ulertzeko.

Kontuan izan behar duzu, botoa ematera doazen pertsonak helduak direla. Horregatik, garrantzitsua da pertsona heldu gisa tratatzea, eta ez, haur gisa.

Kontuan izan behar duzu baita ere, adimen-urritasuna duten pertsonak erabakiak haien kabuz har ditzaketela. Adibidez, alderdi politiko bat aukeratu dezakete.

9. Hautesleku barruan bete beharreko arauak.

Hautesleku barruan arau batzuk bete behar dira.
Arau horiei, **ordena publikoa** ere esaten zaie.

Arauak hauek dira:

- Hauteslekuko sarrera irisgarria izan behar da.
- Hautesleketan dauden pertsonak, guztien botoa errespetatu behar dute eta ezin diote inori esan zein alderdi politikori eman behar dioten botoa.
- Ezin da inor hauteslekura armekin sartu.
- Ezin da alderdi politikoei buruz hitz egin.
- Hedabideek grabatzeko baimena behar dute.

Hauteslekuetan sar daitezkeen pertsonak.

Hauek dira hauteslekura sartzeko eskubidea duten pertsonak:

- Boto-emaileak eta laguntzaileak.
- Alderdi politikoaren ordezkariak.
- Alderdi politikoetako hautagaiak.
- Artekariak eta ahalduak.
- Notarioak.
Notarioak administrazioko langilea da.
Notarioak dokumentu bat legezkoa dela egiaztatzen du.
Adibidez, boto-txartelen informazioa ondo idatzita ez dagoenean.

- Agintaritzaren agenteak.
Adibidez, Ertzainak eta Udaltzainak.
- Eskualdeetako hauteskunde batzordeetako pertsonak.
Hautesleku bakoitzean,
hauteskundeak ondo egiten ari direla egiaztatzen dute.
- Instrukzioko epaileak.
Gatazkak konpondu eta delituak zigortzeko legeak
aplikatzen ditu.
Instrukzioko epaileak eskualdeko hauteskunde-batzordeetako
kide izan daitezke.
- Hauteskunde-materiala mantentzeaz arduratzen diren pertsonak.
Adibidez, hautetsontziak, botoak edo gutun-azalak.
- Administrazio publikoaren ordezkariak.
Hautesleku bakoitzean, administrazio publikoa
ordezkatzen duen pertsona bat dago.

Pertsona hauek, datuak Zabaltzeko Zentrora
hauteskunde mahaiko boto zenbaketaren
emaitzak komunikatzen dituzte.

Datuak Zabaltzeko Zentroak, hauteskundeen emaitza zein den esaten du.

Administrazio Publikoa ordezkatzeko duten pertsonak ere hauteskunde mahaian dauden arazoei buruz informatzen dute. Adibidez, arazoak badaude botoa emateko materialarekin.

Haitesleku barruan egon nahi duen beste edozein pertsonak, hauteskunde mahaiko presidentearen baimena izan behar du.

10. Hauteskunde mahaian egon daitezkeen arazoak.

Hauteslekuan arazoren bat egonez gero, bilkura aktan jaso behar da.

Arazo horrekin zerikusia duen pertsonaren izen abizenak idatzi egin behar dira.

Bozketa hasi aurretik egon daitezkeen arazoak.

- Hauteskunde mahaiko presidentea eta ordezkoa ez dira hauteskunde mahaira aurkezten. Hori gertatzen denean, lehen bokala presidente izendatzen dute.
- Hauteskunde mahaia osatzen duten pertsonak aurkezten ez badira, eskualdeko hauteskunde batzordeari esan behar zaio. Eskualdeko hauteskunde batzordea hauteskunde mahaia osatuko duten pertsonak izendatuko ditu.

Hauteskunde mahaia goizeko 11ak baino lehen osatzen ez bada, eskualdeko hauteskunde batzordeak beste egun baterako antolatuko du bozketa.

Bozketa hurrengo 2 egunetan egin behar da.

Adibidez, igandean bozkatzen dugunean hurrengo bozketa, astelehenean egin behar da edo asteartean.

Eskualdeko hauteskunde batzordeak hauteskunde mahaia osatzeko pertsona berriak izendatuko ditu.

- Hauteskunde mahaian dokumenturen bat falta bada, presidentek, eskualdeko hauteskunde batzordeari informatu behar dio.
- Beste arazo bat izan daiteke, hauteskunde mahaiak, artekariaren izen abizenen dokumentuaren kopiarik ez izatea. Kasu honetan, mahaiak duen dokumentazio gutun azalean dagoen begiratu behar da. Baliteke dokumentu hori hor egotea. Horrela bada, ez dago arazorik.
- Artekariak hauteskunde mahaira aurkezten direnean, goizeko 8 eta erdiak eta gero, hauteskunde mahaia jada osatuta dagoenean. Kasu horretan, mahaian eman dezakete botoa, baina ezin dute artekari lana egin.
- Pertsona batek, hauteskunde mahaiko eratze-aktaren kopia eskatu eta presidentek berandu ematea. Pertsona honek erreklamazio bat egin dezake.

Erreklamazioaren 2 kopia emango dira:

- Kopia bat bilkura-aktarekin batera joango da.
- Beste kopia erreklamazioa egin duen pertsonari emango zaio.

Bozketa bitartean egon daitezkeen arazoak.

- Alderdi politikoren baten boto paperak falta izatea.
Boto paperak falta direnean,
hauteskunde mahaiko presidentek, eskualdeko hauteskunde batzordeari ahalik eta azkarren,
boto paper gehiago ekartzeko eskatuko dio.

Bozketa gelditu egin behar da hauteslekuan alderdi politiko baten boto paperak falta direnean.

Hauteskunde mahaia ordubete baino gehiago gelditzen bada, hauteskunde mahaiko presidentek, hauteskunde mahaiko pertsonekin kontsulta dezake hauteskundeak luzatzeko.

Bozketa amaitzea erabakitzen bada,
eskualdeko hauteskunde batzordeak
bozketa egiteko beste egun bat aukeratzen du.
Bozketa hurrengo 2 egunetan egin behar da.

Adibidez, igande batean bozkatzen bada,
eta hauteskunde mahaiko pertsonak hauteskundeak
gelditzen badituzte, hurrengo bozketa,
hurrengo astelehen edo asteartean izan behar da.

- Norbaitek behin baino gehiagotan botoa eman nahi izatea.
Pertsonak behin bakarrik eman dezakete botoa.
Behin baino gehiagotan botoa ematea delitua da.
- Posta bidezko botoa eskatu duen pertsona
botoa ematera hauteslekura joatea.
Posta bidez bozkatzea eskatu badu
ezin du hauteskunde mahaian bozkatu.
- Presidenteak protestarik edo erreklamaziorik dagoen
galdetzen du.
Protesta edo erreklamazio bat badago,
hauteskunde-mahaiko pertsonak, egoeraren inguruan
bozkatzen dute eta gehiengoak erabakitzen duena egiten da.

Erreklamazioak kasu hauetan egin daitezke:

- Hauteskunde mahaiko pertsonak, botoa ematen duen pertsonaren nortasunaren inguruan zalantzak dituztenean.
- Hauteskunde mahaiko pertsonak, pertsona bati botoa emateko baimena ematen ez diotenean.

Bozketa ondoren ondoren egon daitezkeen arazoak.

Bozketa amaitzen denean, botoen zenbaketa hasten da.

Botoen zenbaketa publikoa da, edozein pertsonak botoak nola zenbatzen diren ikus dezake.

Zenbaketa boto guztiak zenbatu direnean amaitzen da.

Botoen zenbaketara doazen pertsonak ezin dute erreklamazio edo protestarik egin.

Presidenteak, botoen zenbaketa eten duen pertsona kaleratu dezake.

Notario, hautagai edo hautagai-zerrendako ordezkariaren batek,
botoren baten inguruan zalantzarik badu,
hauteskunde mahaiak berrikustea eskatu dezake.
Adibidez, uste du botoren bat gaizki zenbatu dela.

ErrazTEA zerbitzuarekin harremanetan jarri nahi baduzu,
honako aukera hauek dituzu:



Helbide honetan daude gure bulegoak:

Sabino Arana 69.
Bilbao. 48012.
Bizkaia.



Hau da gure e-maila:

erraztea@apnabi.org



Hau da gure web orria:

<https://erraztea.apnabi.eus/>



© Europa irakurketa erraza: Inclusion Europe.
Informazioa gehiago www.easy-to-read.eu

© ErrazTEA www.erraztea.apnabi.eus



Irakurketa erraza idazteko teknika bat da, irakurtzeko
zailtasunak dituzten pertsonen ulermena errazten diena.